

An abstract network diagram composed of several overlapping rectangular sections. Each section shows a network of nodes (represented by small black pins) connected by lines. The top section uses pink lines, while the lower sections use blue lines. The overall shape of the composition suggests a stylized letter 'T'.

Prestazioen eta zerbitzuen gida

TOLOSAKO UDALEKO
GIZARTE-ZERBITZUAK

Prestazioen eta zerbitzuen gida

**TOLOSAKO UDALEKO
GIZARTE-ZERBITZUAK**

2024ko edizioa

Tolosako Udala.
Gizarte Zerbitzuak eta
Osasuna Saila.
Plaza Zaharra, 6A
20400 Tolosa
www.tolosa.eus





GIZARTE-ZERBITZUAK

Komunitate baterako zerbitzuak



Kontaktua:

Plaza Zaharra, 6A
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 44 66. Luz. 911
gizartezerbitzuak@tolosa.eus
www.tolosa.eus

Ordutegia:
astelehenetik ostiralera 07:30etik 15:30era.

Jendaurreko arreta:
astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara,
ostegunetan ez.

Aurretik hitzordua eskatu behar da; telefonoz,
posta elektronikoko bidez, edo bertara etorrira.

ZER GARA?


Zerbitzu publikoa gara eta **gure funtzio nagusia da gizarte-beharrak detektatzea eta horiei erantzutea gizarte-ongizatea sustatzeko.** Horretarako, pertsonen, familien edo taldeen egoera edo beharren baloraziotik abiatuta, arretarako plan pertsonalizatuak lantzen ditugu; eta norbere baliabideak, edota bestelako baliabide tekniko, ekonomiko edo teknologikoak baliatzen ditugu.



NOR GARA?

Tolosako Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna
Saileko lantaldea gizarte-laneko eta
administrazio-kudeaketako profesionalek
osatzen dugu.

Lehenengo hitzorduan erreferentziazko
profesionala izendatzen dugu, prozesu
guztian pertsonari edo familiari
lagunduko diona.





NORENTZAT DA ZERBITZUA?

**Tolosan bizi diren pertsona, familia edo talde/
elkarte guztiei eskaintzen diegu zerbitzua, baldin
eta laguntza behar badu/badute:**

Autonomia pertsonala, gizarteratzea edota
gizarte-ongizatea sustatzeko.

Mendekotasun-egoerak, babesgabetasun-
egoerak, bazterketa-egoerak edo larrialdi-egoerak
prebenitzeko, edota egoera horien eraginez
sortutako beharrei erantzuteko.





Besteak beste, honelako egoeretan edo
antzekoetan lagundu ohi dugu:

«78 urte dauzkat eta bakarrik bizi naiz.
Gero eta gehiago kostatzen zait kalera
ateratzea eta oso bakarrik sentitzen naiz».

«Alaba hazten doan eran, gure
familian elkarbizitza jasangaitza ari da
bihurtzen. Laguntza behar dugu».

«Atzo aitak ondoeza izan zuen eta ospitalean
dago. Bera zen gure amaren zaintzaile
nagusia. Ez dakigu nola moldatu...».

«Ez dakit zer egin... uste dut semea substantzia
kaltegarriak kontsumitzen hasi dela».

«Zailtasunak ditut etxeko-lanak
egiteko eta nire familiak ezin dit lagundu
premia guztietan».

«Nire bikotekideak hutsaren pare
sentiarazten nau. Badakit ez dudala
merezi tratu hori, baina ez naiz gai
harreman hori eteteko».

«Gure elkartearen ekintzak
antolatzekeo laguntza behar dugu».

• • •

ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK



1.

Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua

Zerbitzu honen bidez, informazioa ematen zaio herritarrari, berak dakarren egoerari edo beharrari erantzuteko dauden prozedura, **baliabide edo prestazioen inguruan**.

Horretarako, **egoeraren berri** jaso ondoren, aurreneko balorazioa eta **diagnostikoa** egin ohi du profesionalak, eta horretarako, ondo identifikatzen saiatzen da beharrak eta zailtasunak, eta gaitasunak, indarguneak eta laguntza-sarea.

Halaber, egoerak hala eskatzen badu, **balorazio-espezializatu hauek** ere bideratzen ditu:

- a. Mendekotasunaren balorazioa**
- b. Desgaitasunaren balorazioa**
- c. Gizarte-bazterkeriako edo indarkeria matxistako egoeraren balorazioa**
- d. Haurren eta nerabeen babesgabetasunaren edo arriskuaren balorazioa**

Balorazio horretan oinarrituta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman aurreikusten diren

baliabide eta prestazioen berri ematen diogu eskatzaileari, eta beharrezko orientazioa ere eskainiko diogu, baliagarriak izango zaizkion baliabideen eta prestazioen inguruko jarraibideak zehatz azalduz eta, behar denean, eskaerak bideratuz.

Hori guztia arreta pertsonalizatuko planean oinarrituta landuko dugu, laguntzarako harremana eraikiz herritarraren eta erreferentziazko profesionalaren artean; finean, harreman hori baliatuko baitugu egoeren aldaketa eta ongizatea sustatzeko.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sarrera nagusia gara Udaleko gizarte-zerbitzuak, eta bertan bideratzen ditugu baliabide eta prestazio gehienak; izan udalekoak, aldundikoak, edota erkidegokoak.

Era berean, elkarteek eta hirugarren sektoreak eskaintzen dituzten baliabideei buruzko informazioa ere ematen dugu; baita horietara bideratu ere.

2.

Adineko pertsonei eta desgaitasun- eta mendekotasun-egoerei lotutakoak

Alor honetan, hainbat baliabide ditugu autonomia sustatzeko, mendekotasuna prebenitzeko edo mendekotasun-egoerek sortutako beharrei erantzuteko.

Edonola ere, baliabide hauek lortu ahal izateko beharrezkoa da dagokion balorazio espezializatua eginda izatea, izan mendekotasunarena, edo izan desgaitasunarena.

a. Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua.

Laguntzeko eta prebentzioa egiteko zerbitzua da, eta nagusiki adineko pertsonei dago zuzenduta. Autonomia galtzeak sortzen dituen zailtasunak prebenitzea, sortutako zailtasunei aurre egiten laguntzea, eta onuradunak ohiko etxebizitzetan mantentzea dira helburu nagusiak. Etxeko laguntzaileak etxearen zaintzako edo zaintza pertsonaleko ohiko zereginak egiten laguntzen die onuradunei, beren bizi baldintzak hobetuz eta ongizatea sustatuz.

Etxez etxeko zerbitzua desgaitasun-egoeren eraginez sortutako beharrei erantzuteko edota beste egoera batzuetan sortu daitezkeen beharrei erantzuteko ere baliatu daiteke.

b. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua. Zerbitzua honen helburua hezkuntza-laguntza ematea da, elkarbizitza eta parte-hartzeko gaitasunak garatuta, familia- eta komunitate-ingurunean modu autonomoan bizi ahal izatea, bizikidetzat ona eta sozializazioa sustatzeko.

c. Blister zerbitzua. Botikak kontrolatzeko farmaziek eskaintzen duten programa da. Honi esker, farmazietan prestatzen dute onuradun bakoitzak egunero hartu beharreko botika-dosia, eta etxeko laguntzailearen ikuskapenarekin botikak egoki hartzen direla bermatzen da.

d. Ibilgailua aparkatzeko txartela. Txartel honek aukera ematen du erreserbatutako aparkalekuak erabiltzeko, gehienezko iraupen-mugarekin. Desgaitasunaren edo mendekotasunaren egoera baloratuta eduki behar da, eta eskatzen diren baldintzak bete. Herritarren arreta-bulegoan (UDATE) eskatu behar da.

e. Mendekotasuna duten adinekoekin bizi diren familiei laguntzeko programa da



SENDIAN. Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei laguntza emateko programa da hau, eta zenbait jarduera eskaintzen ditu zaintzaileen beharrei erantzuteko; besteak beste, prestakuntza, laguntza psikologikoa eta autolaguntza-taldeak. Horrela, zaintzaileen artean sortu ohi diren egokitzapen-arazoak, gatazkak, eta ezinak gainditzeko tresnak eskaintzen dira, eta elkarbizitza hori mantentzea sustatu.

f. Haurrentzako arreta goiztiarra.

Garapen-arazoak edo arazo horiek izateko arriskua duten 0-6 urteko haurrei eta beren familiei-zaintzaileei eskainitako zerbitzu-multzoa da, motrizitatea suspertzeko terapiak eta behar bereziak artatzeko sortutakoa. Zerbitzu hau eskatzeko, beharrezkoa da sendagilearen txostena, haurrak dituen zailtasunen berri ematen duena.

g. Laguntza teknikoak. Laguntza horien bidez mendekotasun-egoerak edo desgaitasunak eragindako autonomia-galerak konpentsatu nahi dira: egokitutako altzariak, gailu elektronikoak, laguntza-tresnak, etxea

egokitzeko obrak, ibilgailuak egokitzeko al-daketak eta abar egiteko laguntzak emanez. Desgaitasun- edo mendekotasun-egoeraren balorazioa behar da laguntza teknikoak eskatu ahal izateko.

Era berean, eskualdean badugu beste zerbitzu bat larrialdi egoerei erantzuteko era-biltzen duguna, aurrez aipatutako laguntzak kudeatu bitartean behin-behinean baliatzeko (gurpildun aulkiak, ohe artikulatuak,...).

h. Tele-laguntza. Telefono bidezko laguntza da, adineko pertsoneri zuzendutakoa. Urteko egun guztietan, 24 orduz, zerbitzu hau prest egoten da larrialdi-abisuak jasotzeko. Gainera, Tolosako Udalak etxebizitzaren giltza Udaltzaingoaren zaintzapean gordetzeko aukera eskaintzen du, larrialdi-egoeretan eraginkortasunez erantzun ahal izateko. Herriarren arreta-bulegoan (UDATE) eskatu behar da.

i. Adineko pertsonentzako eguneko zerbitzua. Zerbitzu honek aukera eskaintzen die mendekotasun-egoera arriskuan edo mendekotasun arinean dauden pertsoneri

taldean parte-hartzeko eta fisikoki, adimenez eta harremanetan aktibatuta egoteko.

j. Jantoki soziala. Uzturre Asistentzia Gunean ematen den zerbitzua da: egunero menu orekatu bat eskaintzen da, eta eskatzen duenak menuaren prezioa ordaindu behar du. Zerbitzua zuzenean eskatzen da Uzturre Asistentzia Gunean.

k. Egoitzan behin-behineko egonaldia. Adinekoak edo desgaitasuna dutenak zaintzapean dituzten familiei zuzendutako zerbitzua da hau. Hain zuzen ere, ohiko zaintza-jarduna eten beharrean direnerako alternatiba eskaintzen zaie zaintzaileei, zaintza-beharrak berme osoz asetzeko, egoitzetan egonaldi laburrak egiteko aukera eskainita. Edonola ere, eskatzaileek egina izan beharko dute baliabiderako orientazioaren balorazioa.

l. Eguneko zentroa. Eguneko zerbitzu asistentziala da, familiak ematen duen zaintza osatzeko balio duena. Mendekotasun-egoera duten pertsonen edo desgaitasuna dutenei eskaintzen zaie zerbitzu hau. Nolanahi ere, interesdunek egina izan beharko dute baliabiderako orientazioaren balorazioa.

m. Tutoretzapeko apartamentuak. Mendekotasun-arriskua edo arrisku-arina duten adinekoei edota desgaitasuna dutenei eskaintako apartamentuak dira, bertan bizi daitezen. Intentsitate baxuko laguntza ematen da bertan.

n. Adinekoentzako familia-harrera. Bakarrik dauden adinekoei familia ingurune normalizatuan bizitzeko aukera ematen die, zaintza-sare informalaren arreta eta laguntza bermatuz. Harrera egiteko prest dauden familiek zenbait baldintza bete behar izaten dituzte, eta

trukean, konpentsazio ekonomikoa jasotzen dute.

o. Egoitza-zentroa. Ohiko bizileku edo bizileku iraunkorra da mendekotasun egoeran dauden adinekoentzat edota desgaitasuna dutenentzat. Bertan, etengabeko arreta jasotzen dute egoiliarrek, eta dituzten behar asistentzialak, sozialak eta sanitarioak asetzen dizkiete. Edonola ere, eskatzaileek egina izan beharko dute baliabiderako orientazioaren balorazioa.

p. Dirulaguntzak

Mendekotasun-egoerei lotutako dirulaguntzak:

- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa. Mendekotasuna duenak bere zaintzarako profesional bat kontratatu behar duen kasuetan ematen zaio laguntza hau. Onuradunak duen mendekotasun-mailaren arabera izaten da jasotzen den laguntza hori.

- Familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa. Mendekotasuna duenarekin bizi eta haren zaintza bere gain hartzen duen senideari lan hori konpentsatzeko ematen zaion laguntza da. Onuraduna adinez nagusia edo adingabea izatearen eta duen mendekotasun mailaren arabera da jasotzen den laguntza hori.

- Zerbitzuari lotutako dirulaguntza. Mendekotasuna duenak bere arretarako behar duen zerbitzu pribatua finantzatzen laguntzeko diru-ekarpena da; beti ere, sare publikoan zerbitzu hori eskatu denean, baina plaza liberrik ez dagoenean ematen da.

Beste dirulaguntzak (*ikusi 4.a. atalean*).

3.

Familia eta elkarbizitza (haurren eta nerabeen babesgabe- tasunaren prebentzioa eta arreta)

Udal gizarte-zerbitzuoi dagokigu herrian dauden babesgabezia-arriskuko egoerak atzematea eta egoera horiek ekiditeko prebentzio-lana sustatzea. Hori dela eta, alor hau behar bezala jorratzeko komunitate-maila osora hedatzen den heziketa- eta prebentzio-jardueran parte hartzen dugu modu aktiboan, udaleko beste zerbitzuekin eta Tolosako gainerako erakundeekin elkar-lanean (osasun arloko eragileekin, hezkuntza arloko eragileekin, eta bestelakoekin).

Beraz, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua dugu. Zerbitzu horrek gizarte- eta hezkuntza-arloko eta laguntza psikosozialeko harreman-prestazioak eskaintzen ditu –banakakoak, familia-koak eta/edo taldekoak–, bai familiaren etxean (etxeko hezkuntza, familiako oinarritzko esku-hartzea), bai ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-bitartekotza).

Zerbitzu horrek haurren eta nerabeen babesgabetasun-egoerak hautematen, prebenitzen eta artatzen laguntzen du, eta esku hartzeko banakako planak planifikatuz eta gauzatuz eskaintzen da. Horretarako, zenbait programa daude, honako helburu hauekin:

- **Gizarte-eragileekin koordinatzea eta sustatzea** alor honetako prestakuntza, sentsibilizazioa eta prebentzioa.

- **Haurrak edo nerabeak** beren ardurapean dituzten familiei aholkularitza eskaintzea, baldin eta orientazio beharrean, gatazkan edo arrisku-egoeran badaude.

- **Adingabeen babesgabetasun-egoerak detektatzea eta baloratzea**, eta horien jarraipena egitea.

- **Babesgabetasun-arrisku** arin edo ertaineko egoeran dauden adingabeekin eta haien familiekin esku hartzea.

- **Esku-hartze komunitarioa** gizarteratzeko zailtasunak dituzten **nerabeekin** eta/edo arrisku-adierazleak dituztenekin.

- **Esku-hartze komunitarioa** gizarteratzeko zailtasunak dituzten **gurasoekin** eta/edo arrisku-adierazleak dituztenekin.

Beste jarduerak.

Modu berean, familien interesekoak diren beste hainbat baliabide bideratzen ditugu; hala nola, **Familia ugarien titulua**, **Seme-alaben jaiotzagatik edo adopzioagatik ematen diren dirulaguntzak** (Herriarren arreta bulegoan, UDATen, eskatu behar da), edo **Adingabeak egitatezko zaintzan dituztentzako laguntzak**. Gainera, guraso-eskolak diruz laguntzen ditugu, jardunaldietan parte hartzen dugu eta abar.

4.

Gizarte-inklusioa

Udaleko gizarte-zerbitzuok pertsonen, familien eta taldeen ongizatera bidean lanketa egiten dugu eta aldaketak sustatzen ditugu, baliagarriak diren zerbitzuak eta prestazioak kudeatuz.

a. Esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko zerbitzua. Zerbitzu honen helburua hezkuntza-laguntza ematea da, familia- eta komunitate-ingurunean modu autonomoan baliatzeko, gizarteratzeko eta bizikidetzan onerako gaitasunak sustatzeko (pertsonalak, familiakoak edo taldekoak).

b. Dirulaguntzak:

- **Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-inklusiorako udal-laguntzak:** Dirulaguntza bat da, oinarritzko beharrak asetzeko izaera duena. Baliabide ekonomikorik gabeko pertsonen edo familiei zuzenduta dago.

- **Gizarte Larrialdietarako Laguntza:** Aldizkakoak ez diren laguntza ekonomikoak dira; eguneroko beharren gastu espezifikoetarako aurre

egiteko behar adina baliabide ez duten pertsonen zuzenduta, helburua izanik bazterketa soziala aurreikusi, ekidin edo arintzea.

- **Kotizazio gabeko pentsioak (PNC):**

Erretiro-adinean (65urte edo gehiago) edo %65etik gorako desgaitasun-egoeran egonik, kotizaziopeko pentsioa jasotzeko eskubiderik ez duten pertsonen zuzendutako aldizkako prestazio ekonomikoak dira. Gainera, badu laguntza gehigarri bat etxebizitzaren alokairua ordaindu behar duten onuradunentzat; baita osasunerako arretarako ere, pentsiodunen baldintza berdinetan.

- **Mendekotasun-egoerari lotutako dirulaguntzak:** *(Ikusi 2.II. Atalean)*

- **Dirulaguntza genero-indarkeriaren biktimetzat:** *(Ikusi 5.d. Atalean).*

c. Gizarte-larrialdietarako balio anitzeko etxebizitzak. Zerbitzu honek denboraldi baterako ostalua eskaintzen die larrialdi-egoera baten edota behar-egoera larri baten harira,



ohiko etxea utzi behar izan duten pertsoneri edo familiei. Indarkeria matxista jasan duten emakumeei ere eskaintzen zaie zerbitzu hau.

d. Etebizitza komunitarioa gizarte-bazterkeria egoeran daudenentzat. Zerbitzu honen bidez, Tolosako Udalak ostatua eskaintzen die gizarte-bazterkerian daudenei.

e. Gizarte-bazterketa larrian daudenentzako eguneko eta gaueko arreta-zerbitzua, Abegi. Eguneko eta gaueko arreta-zerbitzua da, intentsitate txikikoa, eta aukera ematen du bazterkeria-egoera larrian dauden eta bizitokirik ez duten pertsonen aukera bat izan dezaten oinarritzko premiak asetzeko (elikagaiak, garbitasuna, ostatua...) eta gizarteratzeko esku-hartze-prozesuari ekiteko. Zuzenean sartzen da baliabidean bertan.

e. Jangela soziala. Uzturre Asistentzia Gunean ematen da zerbitzua, eta honen bidez, egunero, menu orekatua eskaintzen zaio herritarrari. Bertan ematen den menuaren

prezioa ordaindu behar du zerbitzu hori jaso nahi duenak, eta Uzturre Asistentzia Gunean bertan egin behar du eskaera.

f. Bazterkeria-egoeran daudenentzako ostatua. Bazterkeria-egoeran dauden pertsoneri gizarteratzeko ibilbidean laguntzeko eskaintzen zaizkien bizitokiak dira.

g. Elikagaien bankua. Tolosan Zutani elkartearen bidez ematen da zerbitzu hau. Elikagaiak banatzen dizkie elkarte honek egoera ekonomiko eskasa duten pertsoneri eta familiei. Laguntza hau jasotzeko, Zutani elkartearen bertan egin behar da eskaera.

Era berean, Caritas elkarteak eskaintzen die zerbitzua bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden herritarrei, oinarritzko beharrianak asetzen laguntzeko helburua duena. Laguntza hau jasotzeko Caritas elkartearen bertan egin behar da eskaera.



5.

Indarkeria matxista eta sexu-erasoak

Indarkeria matxista jasaten dutenei arreta ematen diegu Udaleko gizarte-zerbitzuetan, eta beharrezkoa den laguntza profesionala eta gainerako baliabideak kudeatzen dira.

a. Arreta psikosozialeko eta soziojuridikoko zerbitzua. Zerbitzu honen helburu nagusia da indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alaba adingabeei eta ardurapean dituzten senideei arreta ematea, eta laguntza eta esku-hartze integrala eskaintzea, bizi izandako egoera traumatikoak gainditzeko, indarkeria matxistako egoeretatik urrun bizi ahal izateko, ohiko duten ingurunean bertan.

b. Laguntza psikosoziala. Zerbitzu honen bidez, indarkeria matxista jasan dutenei laguntza espezializatua eskaintzen zaie, egoera horrek eragindako beharrian psikologiko eta emozionalak gainditzeko. Indarkeria matxista hori edozein eratan jasan dutenei eskaintzen zaie arreta; emakumeaz gain, seme-alabei, eta erasotzaileei beraiei ere bai.

c. Laguntza juridikoa. Zerbitzu honen bidez, informazioa eta orientazioa eskaintzen zaie indarkeria matxista edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzak jasan dituztenei.

d. Egoitza-zentroa indarkeria matxista jasan dutenentzat. Indarkeria jasan duten emakumeei eta haien zaintzapean daudenei urgentziako arreta eta arreta integrala eskaintzeko zentroak dira.

e. Dirulaguntza genero-indarkeriaren biktimentzat. Erasotzailearengandik bereizita oinarritzko beharrak asetzeko laguntza ekonomikoa da, bizitza berrantolatzeko bidean laguntza izan nahi duena.

e. Laguntza juridikoa sexu-erasoak jasan dutenentzat. Diru-laguntza bat da, epaiketa-prozesuan defentsak sorrarazten dituen gastuak ordaintzen laguntzeko sortua (lehenengo instantzian), beti ere erasoak jasandako pertsonak doako Justizia eskatzeko eskubiderik ez badu.

6.

Osasunerako eta adikzioen prebentziorako zerbitzua

Udal gizarte-zerbitzuok adikzioak prebentzeko programak ere garatzen ditugu, herritar guztien bizimodu osasungarriagoa lortzeko ohiturak sustatzeko.

Horretarako, eta Adikzioen Prebentziorako Tokiko Planean oinarrituta, hainbat programa eta jarduera diseinatu eta planifikatzen dira, Prebentzio Komunitarioko Mahaiko kideekin lankidetzan.

- Prebentzio unibertsaleko programak.

Programa horien bitartez, garapen pertsonala, eta balio eta jarrera positiboak transmititzera zuzendutako hezkuntza-mailako lana sustatzen da, norberaren osasunaren

ikuspegitik, eta adikzioen prebentzioa jorratuz.

- Prebentzio selektiboko programak.

Ahultasunak dituzten gizarte-taldee zuzenduta daude eta programa hauen helburua izaten da babes-faktoreak bultzatzea, eta hasierako edo ohiko kontsumoak dauden kasuetan, arriskuak gutxitzea.

- Prebentzio adieraziko programak. Adikzio-arazoak dituzten pertsonen eta familiei zuzenduta daude. Pertsona horiekin eta haien ingurukoekin esku-hartzea egiten da, kontsumoak gainditzeko eta gizarteratzen laguntzeko.



7.

Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta lankidetzak

Udal gizarte-zerbitzuetatik herritarren parte-hartze antolatua sustatzen dugu, gizarte-zerbitzuen berezko helburuak lortzeko ekimenak ahalbidetuz.

Ilido horretan, elkarte eta gizarte-eragile boluntarioek sustatutako ekimen oro sustatzen da, bai eta gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta haien senideen parte-hartzea ere, betiere gizartearen interes orokorreko jotzen badira eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antzeko helburuak badituzte.

a. Osasun-arloko eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak garatzen dituzten elkarteentzako dirulaguntzak, bai toki-mailan (Tolosa), bai nazioarteko lankidetzan. Horretarako, dirulaguntza ekonomikoetarako deialdia egiten da urtero, eta Tolosan egoitza edo ordezkaria duten elkarteek aurkeztutako proiektuak diruz laguntzen dira:

- Tolosako udalerrian gizarte eraldatzeko hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak eta proiektuak gauzatzeko.

- Gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arloan jarduerak gauzatzeko.

- Gizarte-zerbitzuen eta osasunaren arloko elkarteak mantentzeko.

- Herrialde pobretuetan garapenerako lankidetzak-proiektuak egiteko.

- Beren borondatez nazioarteko lankidetzan parte hartzeko.

- Larrialdi-egoeretan jarduera humanitario puntualak egiteko

b. Izaera sozialeko elkartei gelak-eraikina uztea.

Tolosan lan egiten duten izaera sozialeko elkarteek aukera dute espazio baten erabilerak eskatzeko. Modu horretan, haien lana antolatu eta zerbitzua eskaini ahal izango dute.

c. Gizarte eta osasun arloko elkarteek eta gizarte-eragileek osatutako sarearen aholkularitza tekniko eta koordinazioa, gizarte-zerbitzuen eremuan parte-hartze zuzena eta aktiboa sustatuz.





BESTE EKINTZAK

Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailak parte hartzen du komunitate mailan sortzen diren zenbait proiektu, programa eta zerbitzutan. Horrela, elkarlanean lortu nahi da herritarrei zerbitzu integrala eta zeharkakoa eskaintzea:

- Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa
- Hezikidetzeta Mahaia
- Tolosaldeko Emakumeen Etxea (ANDRAGORA)
- Haurren hiria
- Prebentzio Komunitarioko Mahaia
- Heziketa Mahaia
- Etxebizitza
- Mugikortasun-plana
- Tolosa Mugi
- Kirol egokitua
- Migrazioa
- Errefuxiatuen programa
- Osakidetzeta
- Lanbide
- Tolosako heziketa-zentroak
- Udaltzaingoa, Kirolak, Berdintasuna, Gazteria, Jaiak, Kultura, Ingurumena, Hirigintza...

Tolosako Udala.

Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saila.

Plaza Zaharra, 6A
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 44 66. Luz. 911
gizartezerbitzuak@tolosa.eus
www.tolosa.eus

Ordutegia:
astelehenetik ostiralera
07:30etik 15:30era.

Jendaurreko arreta:
astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara,
ostegunetan ez.

Aurretik hitzordua eskatu
behar da; telefonoz,
posta elektroniko bidez, edo
bertara etorrita.



TOLOSA